

COVID-19AREN BELDURRA EZ DA AUKERA TXARRA PLASTIKO GEHIAGO SORTU ETA ERRAUSTUZ JARRAITZEKO

Bihotz oneko herritarrak, ia inork aurrez iragarri ez zion izurriaren lehen kalteen eraginpean *groggy* dabilela, mundu berri hobe baten etorrera ikusi dutenei sinetsi nahi lieke. Baina aurreko mundu zaharraren jokabide zitelenak gaiztotzen ari direla ere ohartzen da. Bat aipatzeko, erabilera bakarreko plastikoen beroaldi berria... errausketa masiboz osatua, noski. Garapen iraunkor bateranzko trantsizioa ez da berez eta erraz etorriko.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Apirilaren 27an jakin denez –herri-tarren konfinamendu eta ekonomia-aren itxialdi betean–, Covid-19 izurriagatik Espainiako Gobernuak ezarritako alarma egoera baliatuz, GHK Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak Zubietako erraustegia kudeatzen duen Ekondakin korporazioari baimenduko dio lurralde honetan sortutako errefusak erretzea, funtzionamendu egoera normal batean bezala, frogatarako epea etenaz. Horra kolpe txiki batez Gipuzkoako gizarteak gehien eztabaidatu duen azpiegitura bat osasun publikoarentzako tresna zoragarri bihurtuta, espresuki izurriaren kontra diseinatuta balego bezala.

Koronabirusak ekarri duen atzeraldi ekonomikoak kutsaduraren gutxitzea eta sortutako hondakin kopurua jaistea ekarri dituela bistakoa da... denetan, Gipuzkoan salbu –hemen Jose Ignacio Asensoren kalkuluetan %6,7 ugaritu baitira, omen–. Gipuzkoa ez den gainerako mundu osoan gutxitu egin diren arren: Madrilgo udalak %19ko jaitsiera aipatu du, Zaragozakoak %22koa, Bartzelonan %17 urritu dira, Bilbon bertan %12...

Zubietako albisteak bat egin du denboran erabilera bakarreko plastikoen biziberritzearekin. *El resurgir del plástico de usar y tirar* laburbildu du *El País* egunkariak, itxialdian kontsumitzaileen artean zabaldu diren ohiturak eta horien zergatiak azaltzerakoan. Birus gaiztoaz kutsatzeko beldurrez, lehen baino are gehiago biltzen omen da orain

salgai oro plastikozko azal eta zorrotan. Ohitura osasungarriagoak hartuak zizuten herritarrak ere itzuli dira, antza, plastikoa hobestera: itxialdian erosketara joatea izanik askorentzako kutsatzeko arrisku ariketa bat, plastikotan bildutako jakiak eta ontziratuak lehentzi ditu jendeak, jaki natural eta librean salduak eskuratzeko zaletasuna ahaztuz. Ontzi berrerabilgarriak zerabiltzaten askok bazterrean utzi omen dituzte krisi honetan. Egia esan, askok ez dute beste aukerarik izan: borroka askoren poderioz arrainarentzako edo okelarentzako ontzi berrerabilgarriak onartzen zizuten saltoki askok debekatu dituzte berriro, eta hondakinen kudeaketan aitzindari den udalerriren batek ere bai. Horra noraino iritsi daitezkeen paranoia eta ezjakintasuna.

Zeren eta zenbait ikerketak erakutsi dutenez, plastikozko azala daukan produktua ez da Covid-19rik ez edukitzeko bermerik handiena daukana. Espainiako Osasun Ministerioak berak apirillean eguneratutako protokolo zientifikoa azaldu zuen koronabirusa zenbat ordu edo egunez bizi daitekeen material ezberdinetan. Profilaxiaren obsesionatuak harrutuko lirakeke haren rankinga ikusita: zura, oihala edo beirakiaren gainean egun bat edo biz biziraun dezakeen bezala, hiru eta lau egun arte iraun dezake plastikozko gauzen gainean eta altzairu herdoilezinean. Paperaren gainean, aldiz, ordu gutxi batzuetan, eta berdin kobrezko tresna edo azaleretan.

Jendeak justu alderantzizkoa uste badu, ez da kasualitatez eta hala erakutsi du AEBetatik Greenpeacek *Plastikoaren industriak honela ateratzen dio etekina Covid-19aren beldurrari txostenarekin*. AEBetako plastikoen lobbyak Manhattan Institute eta Competitive Enterprise Institute bezalako *think tank* kontserbadoreen bitartez plazaratu ditu artikuluak, iradokiz zorro berrerabilgarriak arriskutsuagoak direla erabilera bakarreko plastikozkoak baino.

PLASTIKOAK ESTERILA BAILITZAN

Patronalak desinformazio kanpainari ekin zion, pare bat unibertsitatek plazaratu ostean koronabirusa gai dela bederatzi egunez ere bizirauteko plastikoetan. Horri erantzuteko kanpainan plastikoaren alde zabaldu dituzten artikulu gezurtietan, dio Ivy Schlegel Greenpeaceko arduradunak, “nahasi dituzte oraingo eta aspaldiko ikerlanak, jendeari ikusarazteko birusaren kutsadura saihesteko onena plastikozko zorroak erabiltzea zela. Baina egia justu kontrakoa da”. Hala ere, maniobrak eman zituen bere fruituak eta berehala hasi ziren AEBetan atzera botatzen erabilera bakarreko plastikoak eragozteko legeak eta batzuk, New Hampshire estatua kasu, iritsi dira poltsa berrerabilgarriak debekatzeraino. Eta topiko batek bestea dakarrenez, plastikoen esterilitate eta segurtasunaren mitoa- rekin batera iritsi da Covid-19aren birusa ukitu ahal izan duen material oro



KONTSUMITZAILEAK

BERRIRO EROSKETETAN ERABILERA BAKARREKO PLASTIKORA ITZULTzea ez da kasualitatez gertatu: Industriak baliatu nahi du COVID-19aren beldurra plastikoa kutsagarriaren irudia zuritzeko.

(ARGAZKIA: ROBYN BECK)

–plastikozko ia beti, izan maskara, bata, eskularru, poltsa...– erraustegian kiskali behar dela dioen araua. Herritarrek ere begi itsuan irentsi dute mitoa eta errausketaren kritikoak ere apenas auzartu dira protesta egitera, tragedia fribolizatzen ari direla itxura ez emateko edo. Katalunian Terra Verda elkarteak auzitara eraman ditu Maresme eskualdeko agintariak hondakin medikoak Mataroko erraustegira eramateagatik. Horiei esker jakin dugu Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatzen duela erretzekotan hondakin sanitarioak hiri hondakinaren erraustegietara ez eramatea.

Filipinetatik salaketa bera zabaldu dute Zero Waste mugimenduko kideek eta unibertsitateko zenbait ikerlariek: “Koronabirusez kutsatutako hondakinak erretzeak okerragotu egiten du ara-

zoa”. Filipinak dira munduko herrialde bakarretakoa hondakinaren erraustea debekatuta daukana eta berrikitan hango osasun agintariak hondakin sanitarioak erretzeko hartu erabakiari erantzun diote idatziarekin.

Osasun zerbitzuetako hondakinetak asko erabilera bakarreko materialez eginda daude, hala nola eskularruak, mantalak, zain barneko injekzioetarako osagaiak eta abar, gehienbat erregai fosilez ekoiztutako plastikozkoak. Horiek erretzean gai toxikoak isurtzen dituzte, dioxina, furano, metal astun, eta bestelako kutsagarri asko, ARGIA-ren irakurleak ondo dakienez. K o n t u a da koronabirusa suntsitzeko ez dagoela errausketa beharrik. “Covid-19 izurria eragiten duen birusa –diote filipinarrek– oso kutsakorra den arren, nahiko erraz suntsitu daiteke deskontamina-

zioz. Errausketa beharrik gabeko alternatibak aspalditik erabili izan dira”. Zehazki aipatzen dituzte agintariak ospitaleetako hondakinaren tratamendurako azken hamarkadan gomendatu izan dituzten desinfekzio sistemak: kloroa erabiliz garbitu, autoklabean egosi, alkoholez edo hidrogeno peroxidoz desinfektatu, mikrouhinezko labeetan... azken-azken errefusa inerteak ondo babestuta lurperatzeraino.

2020ko krisitzarraren erdian, plastikoa ekoizleek eta erraustegiek arnas berria hartu nahi dute. Beren irabaziak denen kutsaduran oinarritzeko obsesio hori eskertuko die 2030a baino lehen zabalduko den hurrengo birusak: Covid-19 honetan ikusi denez pandemiak maite baitituzte leku kutsatuetan bizi diren herritarren organismo ahulduak. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 - 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

Facebook and Instagram icons.